



DOKUMENTUAK / DOCUMENTOS

15

**HIZKUNTZAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN
GARAPENA ESKU HARTZEKO EREDU
INKLUSIBOAREN BARRUAN**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

15

HIZKUNTZAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN GARAPENA ESKU HARTZEKO EREDU INKLUSIBOAREN BARRUAN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2006

Hizkuntzaren eta komunikazioaren garapena esku hartzeko eredu inklusiboaren barruan / [egileak, José Luis de Miguel ... et al.]. - 1. argit. - Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2006

p. ; cm. - (Hezkuntza-premia bereziak. Dokumentuak = Necesidades educativas especiales. Documentos; 15)

Port. y texto contrapuesto en castellano: "Desarrollo del lenguaje y de la comunicación en el marco de un modelo inclusivo de intervención"

ISBN 84-457-2420-7

1. Lenguaje-Adquisición. 2. Educación inclusiva. I. Miguel, José Luis de. II. Euskadi. Departamento de Educación, Universidades e Investigación. III. Título (castellano). IV. Serie

159.946.3

37.043

Argitaraldia: 1.a, 2006ko otsaila

Ale-kopurua: 500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Egileak: José Luis de Miguel, Arantza Etxebarria, Maria Luisa Jaussi, Rafael Mendía eta Carlos Ruiz

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: XXXXXX

Inprimaketa: XXXXXXXXXXXXXXXX

ISBN: 84-457-2420-7

D.L.: XXXXXXXXXXXXXXXX

AURKEZPENA

Euskal hezkuntza-sistemak ikasle mota guztiak, beren ezaugarriak, desabantailak eta zailtasunak zeintzuk diren alde batera utzita, hartuko dituzten eskolak garatzea planteatzen du, besteak beste, ildo nagusien artean. Izan ere, eskola mota horrek aniztasuna aberastasun gisa baloratu nahi du.

Gauzak horrela, urratsak ematen ari gara ikasle guztientzat kalitateko eskola bat eraikitzeko bidean eta, halaber, eskola-arrakasta helburu duen kalitateko hezkuntza hori eskolan bertan eman behar dela defenditzen dugu.

Haur batzuek hezkuntza-sisteman arazoak izan ditzakete. Ikuspegi inklusiboaren arabera, ez da nahikoa ikasleen zailtasun pertsonaletara jotzea, eskolan dituztenak azaltzeko. Horretaz gain, eskolen hezkuntza-praktikek ere oztopoak sortu ahal dituzte ikaskuntza-prozesuan.

Guztientzako eskola baten ikuspegiak oztopo horiek ulertu eta ikasle guztien ikaskuntza eta parte hartzeko beharrak asetzeko gai izango diren eskolak garatzea ditu helburu.

Eskolan izan daitezkeen beste oztopo batzuk hizkuntzaren eta ahozko komunikazioaren garapenari lotutakoak dira.

Banakako laguntza ematea da hizkuntza eta ahozko komunikazioa ikasle guztiei helarazteko moduetako bat. Ikastetxeko pertsonal guztiak parte hartu behar du hizkuntza eta ahozko komunikazioa, ikaskuntza eta parte-hartzea garatzeko laguntza-jardueretan.

Era honetan, hezkuntza-lanari lotutako pertsonal guztia laguntza emateko eragile bihurtzen da eta pertsonal espezialista laguntzaile, ikastetxeak, bere hezkuntza-programaren bidez, ezabatu ditzan zailtasun bereziak dituzten ikasleen komunikazioa, ikaskuntza eta parte-hartzea eragozten dituzten oztopo guztiak. Izan ere, zailtasun bereziak dituzten ikasle horiek batzuetan aurre egin behar diote bidean aurkitzen dituzten oztopoak gainditzeko bide neketsuari.

Hezkuntza-premia bereziei buruzko agirien sailean aurkezten den testuak ahozko komunikazioari aurre egiteko orientabideak zehaztu nahi ditu, guztientzako eskola baten testuinguruan, baita pertsonal espezialistak eredu honen barruan esku hartzeko lehentasunak ere.

Eskerrak ematen ditut kalitateko eskola bat eraikitzeko prozesuan irakasle guztien eta pertsonal espezialistaren lan eta ahaleginarengatik, oztopo guztiak gainditzeko lan egingo duen eta haur guztiei garapen pertsonalerako eta parte hartzeko espazio bat eskainiko dien eskola bat, alegia.

TONTXU CAMPOS GRANADOS

Eusko Jaurlaritzako

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua

AURKIBIDEA

	Or.
1. ATARIKOA	7
2. HIZKUNTZA ESKURATU ETA GARATZEA CURRICULUM ARRUNTEAN	9
2.1. Ahozko hizkuntza Haur Hezkuntzan	9
2.2. Gaztelania eta euskara Lehen Hezkuntzan	10
2.3. Gaztelania, Euskara eta Literatura Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan	11
2.4. Hizkuntzaren garapena eta eskolaren zeregina	11
3. ANIZTASUNARI ARRETA EMATEA GELA ARRUNTEAN: ESKU HARTZEKO EREDU INKLUSIBOA	15
4. HEZKUNTZA SISTEMAK AZKEN HAMARKADOTAN IZANDAKO ERALDAKETA	17
5. ENTZUMEN ETA HIZKUNTZA IRAKASLEAK ETA LOGOPEDAK	21
5.1. Funtzioak	21
5.2. Arreta-motak	22
5.3. Esku hartzeko irizpideak	22
6. ESKU HARTZEKO EREDU INKLUSIBOA: HEZKUNTZA-LANKIDETZA	27
7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	29

1. ATARIKOA

Eskola inklusiborantz doan bidea egiteko —2003-2006 aldirako Hezkuntza Berriztatzeko Programen lehentasunezko ildoetan lehena den aldetik—, guztion konpromisoa behar da, Hezkuntza Administrazioarena lehenik eta behin, eta horrekin batera, eskola-komunitatean diharduten irakasle eta langile espezializatu guztien lan goraipagarria, guztiontzako lekua izango duen testuingurua osatu dadin.

Gure lanaren xede dugun eskola inklusibo horren helburuetako bat da ikasle guztiei oinarrizko tresnak ematea eskola-asebetetasuna, ikastea eta arrakasta lor dezaten, ikaskuntza horrek ikasle guztiei —berdin dio hezkuntza-premia bereziak dituzten ala ez— aukera eman diezaien gizartean era positibo eta eraikitzailean kokatzeko.

Helburu hori gogoan, eskolaren funtsezko zeregina da ahozko hizkuntza eta pertsonen arteko eta gizarteko komunikaziorako gaitasuna eskuratzea.

Dokumentu honek irakasle guztiei gogorarazi nahi die ikasleen gaitasun hori garatzeko premia, eta ahalegin betean jardun behar dutela zeregin horretan gelako eguneroko lanean, ahozko hizkuntzaren eskuratze eta garapenean etengabeko hobekuntza sustatuz.

Lan horri eusten dion hezkuntzako esku-hartzearen eredia gaitasun-eredua da, zeinetan irakasle guztiak gai baitira komunikazioa eta ahozko hizkuntza garatzeko, behar izanez gero laguntza, aholkularitza eta orientabidea eskatuz, ikasle jakin batzuek izan ditzaketen zailtasunei ekiteko. Horrek aukera ematen dio profesional espezialisten taldeari zuzenean aritzeko egoera edo premia larrietan, eta irakasleei orientabidea eta laguntza emateko eguneroko gela-lana hobetu dezaten, edo laguntza-lana, pedagogia terapeutikoko irakasleen eta kontsultoreen kasuan; betiere, hezkuntza-sistema osatzen duten mailen curriculumari lotutako ahozko hizkuntza eta komunikazioaren garapena errazteko helburua gogoan.

Irakasleek eskolan egiten duten eguneroko lanari euskarria ematen dion gaitasun-eredu hori, beraz, eredu klinikoaren aurrez aurre dago; azken hori esku hartzeko beste alor batzuei egokitzen baitzaie, konponbide terapeutiko eta errehabilitatzailetan oinarritzen denez.

Asmo eta helburu horretan kokatu behar da, beraz, dokumentu-sail hau, eskola inklusiboaren testuinguruan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin zuzenean aritzen den langileentzat baita.

KONRADO MUGERTZA URKIDI
Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria

2. HIZKUNTZA ESKURATU ETA GARATU CURRICULUM ARRUNTEAN

Hizkuntza funtsezko tresna eta bidea da sozializazio-prozesuan, inguruari egokitzeko eta inguruan integratzeko aukera ematen duelako, baita gizarte-testuinguruari dagozkion balioak, sinesmenak, iritziak, ohiturak... eskuratzeko ere. Hartara, hizkuntzaren garapena da hezkuntza-sistemaren helburuetako bat. Helburu hori etapa bakoitzeko oinarrizko curriculum-diseinuaren(OCD) helburu orokorretan zehaztu eta doitzen da, eta ikasle guztiek eskolatzean zehar garatu beharko lituzketen gaitasunen arabera formulatzen da:

— *Haur Hezkuntza:*

- «Gero eta eremu zabalago batean eraikitzea harreman sozialak, entzuteko jarrera bereganatuz, eta beren interes, ikuspuntu eta ekarpenak besteekin lotzen ikasiz.»
- «Hitzezko lengoaia ohizko komunikazio egoeretara egokituz erabili, besteek diotena ulertzeko eta ulertua izateko, beren ideia, sentimendu, esperientzia eta desioak adierazteko, esanguren eraikuntzan aurrera egiteko, norberaren jokabidea arautzeko eta besteenean eraginik izateko.»

— *Lehen Hezkuntza:*

- «Euskarazko eta erdarazko ahozko nahiz idatzizko mezuak ulertu eta ematea, asmo eta komunikazio testuinguru desberdinetan.»

— *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:*

- «Euskaraz, gazteleraz eta gutxienez atzerriko hizkuntza batez ahozko eta idatzizko mezu zuzenak ulertzea eta autonomiaz sortzea, eta hizkuntza horiek komunikatzeko, norbere pentsamendua antolatzeke eta erabileran inplikaturata dauden prozesuen gainean gogoeta egiteko erabiltzea.»

Etapa bakoitzeko helburu orokorrak dira hezkuntzako esku-hartzearen erreferente nagusia, eta esperientzia-eremu eta alorren helburu, eduki eta ebaluazio-irizpideetan hartzen dute testuingurua, curriculum arrunta osatuz. Irakasle-tutoreek eta alorreko irakasle espezialistek garatuko dute curriculum arrunt hori, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuen bitartez.

2.1. Ahozko hizkuntza Haur Hezkuntzan

Sozializazio-prozesuaren lehen urratsa pertsona arteko harremana da, eta horren mende dago hizkuntzaz jabetzea. Haurrak estimulazioa behar du hizkuntza ikasten hasteko, hitz egiten dioten pertsonen inguratuta badago ikasten baitu, eta heldua hartzen du eredu, hizkuntza komunikatzeko tresna gisa erabiltzen ikastera bultzatuko duen estimulu edo bizkorgarri. Ikastetxeak zeregin inportantea du hizkuntza eskuratu eta garatzeari dagokionez, familian pobretuta dagoenean batez ere, eta irakasleek berebiziko eginkizuna dute ikaskuntza horretan, erabakigarria, gainerako haurren eraginarekin batera.

Ikuspuntu horretatik, «*Komunikazio eta Errepresentazioa*»¹ deritzon esperientzia-eremuak, irakasleek beren hezkuntza-jardunean ikasle guztiekin garatu behar dituzten helburu eta edukiak.

Esperientzia-eremu honen helburu orokorren artean, ondokoak azpimarra ditzakegu, hizkuntzarekin eta komunikazioarekin duten harreman estua dela eta:

- «Sentimendu, nahi eta ideiak adieraztea ahozko mintzairaren bidez, pixkanaka ohizko komunikazio testuinguru eta egoera desberdinetara eta solaskide desberdinetara egokituz.»
- «Beste haurrek eta pertsona helduek adierazten dizkieten mezuak eta mugak ulertzea, ahozko mintzaira besteekiko harremanerako bide gisa baloratuz.»
- «Kultur tradizioko testu batzuk ulertu, ikasi eta birsortzea, haienganako interes, balorapen eta gozatze jarrerak erakutsiz.»
- «Idatzizko mintzairarako interesa eduki eta informazio eta gozamenerako tresna gisa eta nahi, emozio eta informazioak adierazteko bide gisa baloratzea.»
- «Errepresentazio eta adierazpen forma desberdinak erabiltzea edonolako egoera, ekintza, nahi eta sentimenduak adierazteko.»
- «Hizkuntz mezueta eta hizkuntza bidezkoak ez diren seinaleetako arauak erabiltzea komunikazio egoera desberdinetan, bere mezuen esanahia indartzeko eta jasotzen ditueni zentzua emateko.»

Edukien 1. multzoak ahozko hizkuntza; jarrera, prozedura eta kontzeptu-edukiak biltzen ditu, ahozko hizkuntza eskuratzea eta garatzeari dagokienez, hala adierazpenaren nola ulermenaren ikuspuntutik.

2.2. Gaztelania eta euskara Lehen Hezkuntzan

Lehen Hezkuntza osatzen duten curriculum-arloen artean «*Gaztelania eta Literatura*» eta «*Euskara eta Literatura*»² daude, eta horien irakaskuntzaren helburua izango da ikasleengan ondoren zerrendatzen diren gaitasunak garatzen laguntzea:

- «Ahozko berbaldiak nahiz idatziak ulertzea, jarrera kritikoarekin interpretatuz, eta berauen ulerkuntza irakaskuntzako egoera berriei aplikatzea.»
- «Ahozko eta idatzizko adierazpenak koherenteki egitea, komunikazio egoera desberdinen ezaugarriak eta hizkuntzaren arauko alderdiak kontuan hartuz.»
- «Ahozko hizkuntza ideiak, esperientziak eta sentimenduak elkartrukatzeko erabiltzea, besteen ekarpenekiko begiramenezko jarrera hartu eta elkartruke komunikatiboaren berezko erregelak kontutan hartuz.»

¹236/1992 Dekretua, abuztuaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegorako Haur Hezkuntzako curriculumaz ezartzen duena. (EHAA, abuztuaren 27koa).

²37/1992 Dekretua, abuztuaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegorako Lehen Hezkuntzako curriculumaz ezartzen duena. (EHAA, abuztuaren 27koa).

Gaitasun horiek dagozkien eduki-multzoetan garatzen dira: hizkuntza pertsonen arteko harremanetan, hizkuntza gizarte-komunikabideetan eta hizkuntza ikaskuntzan.

2.3. Gaztelania, Euskara eta Literatura Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, euskara eta gaztelaniaren irakaskuntza-ikaskuntza «*Gaztelania, Euskara eta Literatura*»³ deritzon curriculum-proposamen bakarrean sartzen da, hizkuntza guztiak beren erabiltzaileen arteko trukeen bitartez eskuratzen direlako. Hizkuntza arloko funtsezko helburua ikasleen komunikazio gaitasuna garatzea da, euskararen zein gaztelanian, komunikazio gaitasuna izanik etapa honetako ikasleak maizen diharduen hizkuntza erabilera eremuetan sortutako eta eduki-multzoekin identifikatutako ahalik eta testu gehienak ulertu eta sortarazteko abilezia. Hona zerikusia duten gaitasun batzuk:

- «Ahozko eta idatzizko berbaldiak ulertzea, beren helburu desberdinak eta ekoizten diren komunikazio egoerak antzemanetz.»
- «Ahoz zein idatziz koherentziaz eta zuzentasunez adieraztea, komunikazio helburu eta egoera desberdinekin bat eta berezko adierazpen estiloa bultzatuz.»
- «Bere adierazpen errekurtsuak erabiltzea, bai linguistikoak bai ez-linguistikoak, beste pertsonekin harreman zuzenak izatean sortzen diren komunikazio erlazioetan.»
- «Hizkuntzaren elementu formal eta mekanismoei buruz hausnartzea, bere maila fonologiko, morfosintaktiko, lexikosemantiko eta testualetan, eta mezuen ekoizpen eta harrera baldintzei buruz, komunikazioko gizarte testuingurutan, berezko hizkuntza ekoizpenak arautzeko gaitasuna garatzeko helburuz.»

Gaitasun horiek garatuko badira, ezinbestekoa da elkarri lotutako bi ardatz oinarritzat hartzea: hizkuntzaren erabilera eta hizkuntzari buruzko hausnarketa.

2.4. Hizkuntzaren garapena eta eskolaren zeregina

Hizkuntza agertzea eta garatzea berezkoa edo psikolinguistikoa den baloratzera sartu gabe, garrantzizkoa da dokumentu honek ardatz hartu dituen puntu interesgarri batzuk zehaztea:

- Bizitzaren lehen hilabeteetan, haurraren eta helduen arteko komunikazioa hizkuntzaz kanpoko bideak baliatuz egiten da, hala nola, begiradak, irribarreak, mugimenduak... gero agertuko dira keinu batzuk, kulturaren aldetik zehaztuak. Garrantzizkoa da 18 hilabeteen inguruan protoinperatiboak eta protodeklaratioak agertzea.
- Haurtxoak ia-ia lehen hilabeteetik ateratzen baditu ere eztarriko hotsak, bertako edo berehalako testuinguru erritualizatueta baino ez ditu erabiltzen, eta gero hedatuko ditu beste testuinguru eta egoera orokorragoetara.
- Lehen hitzak agertu eta komunikazio-testuingurueta erabili ondoren, haurra ulertuz doa hizkuntza tresna bat dela, bere asmoak adierazteko balio duena; era berean, hizkuntza errealitatearen ordezkio egokia dela konturatuko da. Izan ere, inguruan duen errealitatea izendatu beharretik eta bere asmoak adierazteko premiatik abiatuta garatuko ditu bere hizkuntza-trebeziak.
- Prozesu horren barruan, imitazioz ez ezik, bere arau propioak ere landuz ikasten du haurrak, Chomskyk adierazi zuen bezala. Nolanahi ere, haurrak ez dira izaki pasiboak prozesu horretan, inguruan entzuten duten mintzoa aktiboki bereganatzen baitute,

³213/1994 Dekretua, ekainaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegorako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculumaz ezaugarri buruzkoa (EHAA, abuztuaren 17koa).

funtzionamenduari buruzko hipotesiak landuz, bai hitzen esanahiari dagokionez, bai alderdi tonal, fonologiko, morfologiko, sintaktiko eta pragmatikoei buruz. Horregatik, beraz, haurren hizketak alderdi horietan halako akats edo oker batzuk agertzen baditu, hizkuntza eraikitzekeo prozesu aktiboaren adierazletzat hartu behar dira, eta haurra bera prozesu hori zuzentzen joango da, erabileraren erabileraz, baldin eta bere hipotesiak frogatu eta, ohiko hizketari erantzuten ez diotela egiaztatuz gero, zuzentzeko aukera badu.

Horiek horrela, eskolak haurrei eskaini behar dizkien hizkuntza-ereduak esanahietan aberatsa behar du, argia eta ongi egituratua; baina, oroz gain, ingurune naturaletan komunikazio-egintzak sortzeko aukera anitz eskaini beharko die. Eskolak, hortaz, komunikaziorako esparru behar du izan, ikaskuntza oharkabea eta esanguratsua bultzatuko duena.

— *Hizkuntzaren gizarte-funtzioak:*

- informazioa eskatu eta konpartitzea
- sentimenduak adieraztea
- gainerakoen portaera erregulatzea
- adimen-egoerak konpartitzea: asmoak, emozioak, irudikatutako mundu eta gertakariak
- negoziatu eta aditu ezinak konpontzea
- talde bateko kide sentitzea (onartzea...)
- autoestima jasotzea (autoeraginkortasuna, eta abar), gizarteko kide diren aldetik.

— *Erabiltzaile gaitua izateko hizkuntza-trebetasunak:*

- ulergarritasuna
- diskurtoaren kohesio-elementuak
- bakoitzaren ekarpenei koherentzia ematea, baita gainerakoen ekarpenekin lotuta ere
- adierazpenak entzule jakinei argi eta garbi zuzentzea
- solaskide bati baino gehiagori hitz egiteko gauza izatea hizketaldi berean
- egoki erantzutea
- gainerakoen ekarpenak ere aintzat hartzekoak direla onartzea.

Eskolari dagokio curriculumaren zehaztasun-mailetatik abiatu —ikastetxearen heziketa-proiektutik (IHP) eta ikastetxearen curriculum-proiektutik (ICP) hasi, eta gelako eta unitate didaktikoen programazioraino, horiek guztiak oinarritzko curriculum-diseinuarekin (OCD) lotuta—, eta goian adierazitako gizarte-funtzioak eta trebeziak sustatzea, baita prebentzioa ere. Hala ere, egia da, Acostak adierazi bezala, maila horien guztien garrantzia onartu arren, gelako programazioak azpimarratu behar direla, horietan hartzen baitute garapenik zabalena unitate didaktikoei.

Beste alde batetik, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eta hizkuntza-zailtasunak dituzten ikasleen ahozko komunikaziorako zailtasunak ebaluatu eta horietan esku-hartzeari buruzko alderdiak ageri dira.

Rigo-k (1999) iruzkindu duenez, haur-hizkuntzaren bilakaerak erritmo eta abiadura desberdinetan egiten du aurrera, eta horrek kasu-aniztasun eta egoera-dibertsitate handia eragiten du ikasgeletan. Ondorioz, hautemateko, ebaluatzekeo eta errefortzurako programak jarri behar dira martxan, hezkuntza-erantzun egokiak emateko moduan.

Esku-hartze logopedikoa, hezkuntza-sisteman zabal hedatu zenetik, bilakatuz joan da eredu klinikotik eskola-eredura. Bi horiek, hain zuzen ere, inguruagatik, baliabideengatik eta helburuengatik bereizten dira (Bosch, 2003; eta Sarmiento, Marchena eta Reyes, 1999).

«Entzumen eta hizkuntzako espezialistaren figura eskoletan sartu zenetik, 1989. urtean, logopediak nahitaez lerratu behar izan du bere ikuspegia eskolarantz; izan ere, haur bakoitzaren

beharrei ahalik eta ondoen egokitzen zaion hezkuntza-erantzuna eman behar zaio eskola-esparru beretik» (Sarmiento, Marchena eta Reyes, 1999; 302).

Azken urteotan, beraz, nahiko argi dago eredu klinikoak zalantzan daudela eskolan, komunikazioari eta hizkuntzari beren produkzio-testuinguruetatik heltzen baitiete, eta hizkuntza-unitateak zatika analizatu eta lantzen baitituzte, edukiak curriculometik kanpo aukeratuz.

Eskola inklusiboan, ikasleen entzumen eta hizkuntza-arazoei eman beharreko hezkuntza-erantzuna inoiz ez da espezialistaren edo tutorearen ardura hutsa eta erabatekoa izango, esku-hartze logopedikoak zeregin partekatu behar duelako izan: ezin dugu pentsatu ikasle batek hizkuntza-arazo espezifikoak dituenean adituek emandako guztiz bestelako irakaskuntza behar duenik.

Ildo horretatik, hezkuntza inklusiboaren kontzeptuak zera dakar: hezkuntza-premia bereziak dituen ikaslearengan fokotutako hezkuntza-erantzuna testuingurura eramatea. Hartara, hezkuntza berezia, metodologia bereizi eta espezializatua —dagoeneko gainditua— ezaugarritzat izan duena; gero eta gehiago ari da hurbiltzen hezkuntza arruntera, eta logopediaren zeregina erronka edo dema baten aurrean jarri du: eskola-errealitatera egokitu beharra, hizkuntzaren eta komunikazioaren nahasteei lotutako beharrei arreta emateko. Beraz, esku-hartze eredu berrikusi behar da, eta eredu klinikotik bereizitako bat sortu, azken hori sanitate-testuinguruetarako aproposagoa baita. Horretarako, eskola-egitura aldatzeari ekin beharko zaio, eta eraldatze hori *Index for Inclusion* (Ainscow eta Booth, 2002) deritzon areri diren dimentsioetan islatzen da:

- A dimentsioa: *Kultura inklusiboak* sortu
 - A.1 sekzioa Komunitatea eraiki
 - A.2 sekzioa Balio inklusiboak ezarri
- B dimentsioa: *Politika inklusiboak* landu
 - B.1 sekzioa Guztiontzako eskola garatu
 - B.2 sekzioa Dibertsitateari arreta emateko laguntza antolatu
- C dimentsioa: *Praktika edo jardun inklusiboak* garatzea
 - C.1 sekzioa Ikaskuntza antolatu
 - C.2 sekzioa Baliabideak mobilizatu

Eskolak zenbait zeregin sustatu behar ditu esku-hartze logopedikoari dagokionez, eta zeregin horien artean ditugu “Dibertsitateari arreta emateko laguntza antolatu” eta “ikaskuntza antolatu”, kontzeptu hori ikastetxearen jardun edo praktiketan zentratzen baita, eskolako kultura eta politika inklusiboen isla diren heinean. Izan ere, honako hau ziurtatu nahi da: gelako jarduerak eta eskolaz kanpokoek ikasle guztien parte hartzea bultzatu, eta ikasleen eskolaz kanpoko ezaguera eta esperientzia kontuan har dadila. Irakaskuntza eta laguntza batera biltzen dira ikaskuntza “antolatze” eta bete-beteko zentzua hartzen dute ikaskuntzarako eta parte hartze oztipoak gaindi-tzen. Irakasleek eta laguntza-langileek eskolako eta komunitateko erakundeetako baliabideak mobilizatuko dituzte, guztion ikaskuntza aktiboari eusteko.

3. ANIZTASUNARI ARRETA EMATEA GELA ARRUNTEAN: ESKU HARTZEKO EREDU INKLUSIBOA

Urritasun, ezintasun, minusbaliotasun terminoak eredu mediko-kliniko batekoak dira. Eredu horren abiapuntua baieztapen honetan datza: pertsona batek bere jokabide-patroietan «arau»-ari men egiten ez badio, gaixotasun, hondamen fisiko edo urritasun bati zor zaio. Urritasun horrek, halaber, halako defizit organiko bat erakusten du, eta segurutzat jotzen da urritasun orok ezintasuna dakarrela, hau da, jarduera edo zeregin jakin batzuk egiteko muga edo nahastea (Garrido, 2004).

Hezkuntza-sistemak, aitzitik, nahiago du dibertsitate kontzeptutik abiatu, eta alde edo diferentzietan aplikatzea, dibertsitatea baita espezieek berezko dutena; bizia formanitzatza da, eta mugagabeko aldaera edo barietateak eskaintzen ditu, eta ezin dira urritasuntzat jo, besterik gabe. Ildo beretik, trebetasunak ere anitz dira, forma askotakoak, eta guztiak erabilgarriak.

«“Hezkuntza-premia bereziak” terminoa baliatzen du gaur egun Hezkuntzak orain arte beste diziplina batzuek urritasun, ezintasun, arazo... deitu duten horietaz arduratzeko; hau da, Hezkuntzak ikasle bakoitzaren hezkuntza-premia berezietan begiratzen die, eta saiatu egiten da horientzako arreta eta erantzunik egokienak eskaintzen.» (Garrido, 2004, 24.)

Eskolak ikasleen dibertsitateari, eta, zehatzago, hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenerako zailtasunak, ematen dien erantzunak sarriegi hartzen du gogoan berariazko esku-hartzea, ikaslearen ezaugarrietan arreta ematen fokalizatzen dena. Jarduera indibidual eta espezializaturatza mugatzen da, zenbait zailtasunerako diseinatu diren programen arabera, subjektua nolabait ahaztuz, bizi duen gizarte-testuinguru baten partaide den aldetik. Esku-hartze espezializatu hori gainerako ikasleekiko esku-hartzetik bereizten da, eta beraz, testuinguru artifizial eta ez oso normalizatzaileetan ematen da, eta kaltegarri gerta dakieke garapen emozionalari eta afektibo-sozialari; esate baterako, gaur egun oraindik, ikastetxe batzuetan, entzumen eta hizkuntza irakasleek ohiko ikasgelatik kanpo eman ohi diote arreta ikasleari.

Ikasgelan, beraz, esku-hartzeko eredu inklusiboa sendotu behar da, ondokoa ezinbesteko abiapuntutzat hartuta: haur batek ohiko curriculumera iristeko izan dezakeen zailtasuna ezin da bere inguruetatik isolatu edo bereizi.

Ikaskuntzaren testuinguru eta prozesu naturaletan oinarriturik eratu behar da esku-hartze logopedikoa, eta komunikazioa garatzera bideratu, hizkuntza-erabilera baliatuz hizkuntza-erabilitazioa baino gehiago, eta gela arruntean zentratu.

Ikuspuntu horretatik, honela definitu dezakegu eskolako esku-hartze logopedikoa: jarduera espezializatuen multzo bat, paradigma eta ikuspegi teorikoetan oinarritua, hizkuntzaren nahastei lotutako hezkuntza-premiei arreta eman eta premia horiek dituzten ikasleak curriculumera iritsi daitezen erraztea xede duena.

Hizkuntza irakasteak berez dakar hizkuntzarekin gauzak egiten, testuinguru egokietan erabiltzen, hizkuntza-elkarreraginen bidez beharrak asetzen irakastea; laburbilduz, komunikatzen irakastea.

«Fonatzen irakastea, edo esaldi zuzenak edota testu biribilak eraikitzen irakastea, garrantzizkoa izanik ere, ez da nahikoa. Ezinbestekoa da, gainera, ikasleari honako hau erakustea: sortzen dituen hizkuntza-egiturei esanahia ematen eta gainerakoek hizkuntzari esangura hartzen.» (Del Río, 2003, 24.)

Laburbilduz, hau da hizkuntza irakastea: pertsonen esku jartzea zenbait baliabide, hainbat prozesu psikologiko espezifiko —sentsorialak, afektiboak eta pertsonen artekoak, kognitiboak eta linguistikoak— mugiarazteko, beren ezagutza eta komunikazio-trebetasun linguistikoak eraikitzeko lagungarri izan dakien.

4. HEZKUNTZA SISTEMAK AZKEN HAMARKADOTAN IZANDAKO ERALDAKETA

Azken hamarkadotan, garrantzizko eraldaketak sortu dira Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sisteman, alor guztietan: gizartearen eskariei egokitzea, jende eta gauza-baliabideak jartzea, doakotasuna, derrigorrezko eskolatzeta zabaltzea, irakasleen prestakuntza, teknologia berriak sartzea, eta abar.

Hezkuntza Bereziaren alorrean, besteak beste, nabarmendu daitezke berrikuntza horiek, irakasleak izan baitituzte eragile, eta esku-hartzeko eredu inklusiboa ekarri baitute.

Prozesu horren barruan, zenbait dokumentu aipa daitezke adibide egokitzat, hezkuntza-ekintzan ekarri duten eraldaketa sakonak aintzat hartuta:

- *Euskal Herriko Hezkuntza Berezirako Egitamua*. Funtsezko aldaketak plazaratu zituen garai hartan hezkuntza bereziaren eremuan zeuden zerbitzuen filosofia eta egituran. Eskola arrunta erreferentzia nagusitzat hartu, eta eraldatze-prozesua erraztu duen oinarritzko azpiegitura garatzea ekarri zuen.
- «Hezkuntza sisteman sartu beharreko hobekuntzak hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak egoki hezitzeko» txostena. Txosten horren ondorioek, hezkuntza bereziaren eremuan jarduteko printzipioei buruzkoek, eskola muinbakar eta integratzailearen printzipioak ezarri zituzten, ikastetxe arrunta joz ikasle guztiei erantzuna emateko hezkuntza-gunetzat, baita hori garatzeko behar ziren arau-proposamen egokiak aurkeztu ere.
- *Euskal Eskola Publikoaren Legea*. Honela definitu du eskola publikoa bera eta haren ikastetxe bakoitza “anitzta, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura mailan bere ingurunean errotua, partaidetzakoa, ezberdintasunen berdintzaile eta dibertsitateen bateratzaile” (EHAA, otsailaren 25ekoa).
- *Euskal Autonomia Erkidegoko arauak, hezkuntza-premia bereziei buruzkoak*:
 - 118/1998 Dekretua, ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integra-tzailearen esparruan antolatzen duena. (EHAA, uztailaren 13a).
 - Agindua, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, beharrian bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko. (EHAA, abuztuaren 31).
 - Agindua, 1998ko uztailaren 24koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat hurrengo hauek

arautzen dituena: alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena eta, bestetik, ez-unibertsitatekoa den hezkuntza-sistemaren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozedura (EHAA, 1989ko abuztuaren 31).

- Agindua, 1998ko abenduaren 22koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 1998ko uztailaren 24ko Agindua aldatzen duena (EHAA, 1999ko urtarrilaren 19a).
- Agindua, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen dituena, gizarte edo kulturaren ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan diren ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun handiak dauzkaten ikasleentzat. (EHAA, abuztuaren 31).
- 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatekoek kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa. (EHAA, otsailaren 25a).

— *Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak (Berritzeguneak)* sortzea:

- 15/2001 Dekretua, otsailaren 6koa, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak (Berritzeguneak) sortzen dituena, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzu gisa. (EHAA, otsailaren 16a).
- Agindua, 2001eko martxoaren 27koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Prestakuntza eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroen (Berritze-guneak) funtzionamendua eta antolamendua arautzen duena. (EHAA, apirilaren 5a).

— Hezkuntza Berritzatzeko Programak (2003-2006). Hezkuntza-jardueraren esparru orokorra zehaztu dute, etorkizuneko gizarteak eskatuko dituen ezagutzak eta trebetasunak kontuan hartuta, eta lehentasunezko bost ildo ezarri dituzte: «Eskola inklusiborantz», «Dimentsio sozio-kulturalak», «Hezkuntza normalkuntza eta eleaniztasuna», «Zientzia, Teknologia eta Garapen Iraunkorra» eta «Ikastetxeen kalitatea eta etengabeko hobekuntza».

Lehentasunezko ildoetan lehenak, Eskola inklusiborantz delakoak, ondoko helburuak ditu, besteak beste:

- Hezkuntza-politika kalitateko eta zuzentasuneko ikuspegi inklusibotik bideratzea.
- Denontzako eskola garatzea. Garatu beharreko eskola inklusibo horretan, eskolarako laguntza-sistema horrek gehitu egingo du ikastetxeek ikasleen aniztasunari arrakastaz erantzuteko duten ahalmena.

Gaur egun, hezkuntza-sistemak zenbait baliabide ditu hezkuntza-erantzun egokia bermatzeko. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei kalitatezko hezkuntza-arreta bermatuko bazaie, ikastetxeetan dauden jende-, gauza- eta antolamendu-baliabideak kontuan hartuta, irizpide orokorrak beharko dira, halako oreka bat bilatzeko moduan inklusioaren eta normalizazioaren

Hezkuntza-sistemako esku-hartze espezializatua, aurrera egin ahala, gero eta gehiago adarkatu edo hedatzen da, eta figura berriak sartzen ditu, ondoko helburua gogoan: ikasleak curriculumera iritsi daitezten erraztea, banakako eta banakatutako ekin-tzen bitartez. Curriculumera iristek, beraz, hauxe ekarri behar du, batez ere: garapen integralaren barruan, haurraren autonomia sustatzea ohiko testuinguruetan, aparteko baliabideekiko mendekotasunak sendotzea saihestuz.

oinarrizko printzipioen eta ikasle horietako bakoitzak dituen beharrei hezkuntza-erantzun egokia emateko printzipioaren artean (azken printzipio hori ere oinarri-oinarrizkoa baita).

Hartara, honako hau gogoratu behar da, oro har, esku-hartze espezializatu guztietarako:

- a) Eskolaren testuinguruko esku-hartze espezializatuaren helburua da hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak *curriculumera iritsi* daitezela, hau da, gaitzea ikaslea zenbait funtziotarako gai egitea, eta ez birgaitzea edo errehabilitatzea -halakotzat hartzen bada, behintzat, hondatutako edo okerrera egindako funtzioak lehengoratzeko edo ordezkatzeko metodoen bidez berreskuratzea-, azken zeregin hori beste zerbitzu batzuei baitagokie. Eta funtzionalitate-irizpidean oinarrituko da, betiere.
- b) Dagokion *balorazio psikopedagogikoa* egin beharko da aurretik. Horri buruz gogorazi behar da hezkuntza-premia berezien aholkularia dela kasuaren kudeatzailea, baita arduraduna ere, balorazio psikopedagogikoa egiteko prozesuari, hezkuntzako esku-hartzearen orientazioari eta baliabideak proposatzeari dagokienez.
- c) Esku-hartze espezializatuak ez du irakasle arrunten hezkuntza-lana oztopatu edo ordezkatu behar, irakasle horiei baitagokie curriculum arrunta garatzea ikasle guztiekin, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak barne direla.

5. ENTZUMEN ETA HIZKUNTZA IRAKASLEAK ETA LOGOPEDAK

Entzumen eta Hizkuntza irakasleek eta logopedek hezkuntza-sistemari laguntzeko baliabide espezializatua osatzen dute, ikastetxeek erantzun egokia eman diezaieten komunikazioaren alorrean agertu diren hezkuntza-premia bereziei.

Ildo horretatik, eskolako esku-hartze logopedikoak zentzu osoa hartuko du ikastetxearen curriculum-proiektuari lotzen zaion neurrian, gela-programazioen eta norbanako curriculum egokitzapenen bidez lotu ere, hezkuntza-etapa bakoitzeko helburuak edo gaitasunak lortze aldera, berdin dio esku-hartze hori irakasleentzako aholkularitzaren bitartez edo ikasleekiko zuzeneko jardueren bidez gauzatzen den.

5.1. Funtzioak

Entzumen eta Hizkuntza irakasleen eta logopeden funtzioak:

- Ikasleek hizkuntza-garapenean dituzten zailtasunak identifikatzea, irakasle-tutorea, kontsultorea eta orientatzailea lankide dituztela.
- Orientabideak eta laguntza-materialak ematea tutoreei eta laguntza-irakasleei.
- Hezkuntza-premia berezien (HPB) aholkulariekin lankidetzan aritzea, hala behar denean, entzumenaren eta hizkuntzaren alorrean zailtasunak dituzten ikasleen diagnostiko psikopedagogiko espezifikoa.
- Koordinazio egokia eramatea, ondokoak aintzat hartuta: irakasle-tutorea, laguntza-irakasleak, fisioterapeuta, terapeuta okupazionala, hezkuntza-laguntzako espezialista, pedagogia terapeutikoko irakasleak, HPB aholkulariak..., zertarako eta esku-hartze logopedikorako planaren hasierako balorazioa, diseinua, garapena, jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Baita familiei informazioa eta jarraibideak emateko ere.
- Jarduteko eta curriculum egokitzeko plana prestatzen laguntzea.
- Komunikazioaren alorreko HPBak erakutsi dituzten ikasleekiko zuzeneko esku-hartzearen bidezko berrezkuntza-programa prestatu, garatu eta gauzatzea, jarritako orientazioak aintzat hartuta, eta dagokion irakasle-tutorearekin koordinatuta.
- Irakasle-taldearekin batera parte hartzea eskola-curriculumaren hizkuntza-alderdien inguruko lan-taldeetan, eta komunikazioarekin eta hezkuntzarekin zerikusia duten programak prestatu eta garatzen (ikastetxearen curriculum-proiektua, ziklo- eta gela-programazioak eta curriculum-egokitzapenak).

- Irakasleei aholkularitza ematea, hizkuntzaren alorreko zailtasunen prebentzio eta tratamendurako jarduerak programatu eta gara ditzaten, ikasleen aniztasunari edo dibertsitateari eman beharreko erantzun global gisa.

5.2. Arreta-motak

Zuzeneko arreta

Irakasle logopedek, beren helburu nagusia kontuan izanik —hau da, irakasleei laguntza eskaintzea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta hobea eman diezaieten—, hizkuntza-berrezkuntzarako programak prestatu, garatu eta ikasleekin zuzenean gauzatzen dituzte.

Egoera larriagoan eta premia handiagorekin dauden ikasleen kasuan, lehenetsuna ematen zaio zuzeneko arretari, zeharkako arretaren gainetik, komunikazioaren alorreko nahaste larriek erantzun banakatua eskatzen dutelako, eta tutoreak ezin dielako berak bakarrik arreta eman..

Zeharkako arreta

Logopedak irakasle-taldeari aholkua eta laguntza ematen egiten duen lana hartzen du kontuan zeharkako arretak. Oso baliagarria da espezialistak gela arrunteko irakasleekin batera parte hartzea programazio orokorraren diseinuan eta garapenean, Haur Hezkuntzako Komunikazio eta Errepresentazio alorretan, eta Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Gaztelania eta Euskara alorretan. Era berean, interesgarria da irakasleekin batera gauzatzea gurasoak ere inplikatzeko estrategiak, lankidetzak gidatuko duten jarraibideak eta orientabideak aintzat hartuta.

5.3. Esku hartzeko irizpideak

Jarraibide batzuk hartu behar dira erreferentziatzen komunikazioaren alorrean HPBak erakutsi dituzten ikasleentzako zuzeneko arretan, baina betiere gogoratuz esku-hartze espezializatua bakarrik erabili behar dela ikasleak bere hezkuntza-premiaren ondorioz behar duen erantzuna ezin denean bideratu beste formula normalizataileagoekin. Hona jarraibideok:

- Ikasle batekiko esku-hartze espezializatu orok haren curriculum-egokitzapenaren barruan behar du, eta halaxe agertu behar du Programazioan eta Ebaluazioan. Beraz, tutorearekin koordinatuz egingo da, espezialistak jarduera berezi eta paralelorik egin ez dezan, curriculum arruntetik eta tutoreak bere ikasle guztiekiko duen arduratik aldentuta. Esku-hartze espezializatuek, hortaz, bat egin behar dute gelako programazioarekin, eta zikloko edo etapako ICPrekin, halako moldez non logopedaren lanak beti egon behar baitu koordinatuta gelan egiten den lanarekin, esku-hartze partzialak eta loturarik gabeak saihestuz.
- Irizpide orokor gisa, zuzeneko arretarako lehenetsunak ezartzeko orduan, ondokoak hartuko dira kontuan:
 - Kasuaren larritasuna, erasanaren mota eta graduari begiratuta, eta ahozko komunikazioaren eta irakurketa-idazketaren alorretan gerta daitezkeen ikasteko zailtasunak aintzat hartuta.
 - Adin kronologiko txikiagoa. Ildo horretatik, hizkuntzaren garapena ez ezik, komunikazioarena ere arriskuan jar dezakeen defizita duen ikaslea izango da esku-hartzearen lehen onuraduna.
- Hezkuntza-premia bereziak iraunkorrak direnean, eta programaren helburuak eta ikaslearen nolakotasunak eta beharrezkoak kontuan hartuta, hizkuntza eta komunikazioaren alorreko esku-hartzea era globalean gauzatu behar da, ondokoak

bilatuz: logopeda ahozko komunikazioaren adierazpen-mailan zentratu dadila, eta pedagogia terapeutikoko irakasleek idatzizko komunikazioa eta ahozko komunikazioaren ulermen-maila landu ditzatela. Hori guztia, esku-hartzean bikoizketarik gerta ez dadin.

- Taldearen interakzioak komunikazioaren eta hizkuntzaren alorrean duen eragina aintzat hartuta, talde txikiaren formula erabiltzea gomendatzen da, ikaslearen ezaugarriak kontuan hartuta banakako esku-hartzea behartzen ez bada, behintzat. Ildo horretatik, beti kontsideratu behar da gela barruko esku-hartzearen eraginkortasuna, posible denean, gelatik ateratzeak eta gelatik ateratzeko uneak ekar ditzaketen abantailak edo desabantailak neurtuz, betiere.
- Hizkuntzaren alterazio- eta nahaste-motak direla eta, eskolako logopediak hezkuntza-izaera duela aintzat hartuz gero, esku-hartze logopedikoa jaso dezaketen ikasletzat joko dira hizkuntzaren alorrean edo komunikazioaren eremuan hezkuntza-premia bereziak dituztenak, ondoko nahasteen ondorioz:
 - Hizkuntza-nahaste larriak —hizkuntza-atzerapena, hizkuntzaren nahaste espezifikoak (disfasia) eta afasia—, baldin eta ahozko hizkuntzaren bitartez egiten den komunikazioa arrisku larrian jartzen bada, ikaslearen ulermen- eta adierazpen-mailak defizitarioak direlako.
 - Hizkuntza-atzerapen edo -nahastea, adimen-urritasunari lotua —adimen-atzerapen arina eta adimen-atzerapen moderatua—, esku-hartze honetan, betiere, ikasleari parte hartzen dituen inguru edo giroetan funtzional gerta dakioketena hartuko da kontuan.
 - Hizkuntza-atzerapen edo -nahastea, nerbio-sistemaren gaixotasunei lotua haurren garun-perlesia, nerbio-sistemaren gaixotasun hereditario eta degeneratiboak, eta abar gaixotasun horiek ahozko hizkuntzaz —adierazpenaren aldetik batez ere— jabetzeko aukera arriskuan jartzen dutenean.
 - Komunikazio- eta hizkuntza-arazo larriak, garapenaren nahaste orokortuari eta adimen-urritasun larri eta sakonei lotuak.
 - Komunikazio-arazoak, portaeraren eta nortasunaren nahastei —mututasun selektiboa— eta disfemiari lotuak.
 - Hizketa-arazoak -nahaste fonologikoa, dislaliak eta disglosiak-. Dislaliatan, esku-hartze logopedikoa zilegi izango da —garapen ebolutiboaren irizpide naturalei men egiten badie eta curriculum arrunteko programak ordezkatzeko ez badira, betiere ebakera— edo artikulazio-zailtasunak ugari direnean, hizketa ulergaitz bihurtzen denean, eta irakur-tzen eta idazten irakasteko eta ikasteko prozesuari enbarazu egiten diotenean. Disglosietan, aldiz, hizketaren garapenarekin zerikusia duten alderdietara joko du esku-hartzeak, larritasunaren irizpidea kontuan hartuta, baita zailtasun horrek ikaskuntza-prozesuan duen eragina ere.
 - Entzumen defizita edo gorreria. Entzumen urritasuna dutenei arreta egiteko programako logopeda espezialistek hartuko dute bere gain esku-hartzea.

Aurreko guztia horrela, ondoko aldagaiak kontsidera ditzakegu eskolan, hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenean esku hartzeko:

- Hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenari lotutako hezkuntza-premia berezien etiologia:
 - A. Arrazoi sentsorialak
 - B. Arrazoi neurologikoak
 - C. Arrazoi psikikoak
 - D. Adimen-urritasuna

- E. Erritmoaren nahasteak
 - F. Arrazoi organikoak
 - G. Heltzeko moteltasuna
 - H. Artikulazio-nahaste funtzionalak.
- Esku-hartzearen lehentasuna, ondokoak aintzakotzat hartuz finkatu daitekeena: nahastearen larritasuna, gelako curriculumera iristean duen eragina eta ikaslea bere garapenaren zein bilakaera-aldian dagoen:
- I. Gehienezko lehentasuna
 - II. Lehentasun ertaina
 - III. Gutxieneko lehentasuna.
- *Hezkuntza-testuingurua*: alegia, esku-hartzea non gauzatuko den; esku-hartzea, betiere, tutorearen eta entzumen eta hizkuntzako irakasle espezialistaren hezkuntza-lankidetzan oinarrituko da:
- *Testuinguru arrunta*: gela arrunta, jantokia, ikastetxea... Hau da, komunikazio-egoera normalizataileetan, ikasle guztiekiko elkarreaginean eta banakako arretarekin. Esku-hartzea, halakoetan, errefortzu-programen eta esku hartzeko plan orokorren bidez egingo da, curriculum arrunta erreferentziatzat hartuta.
 - *Testuinguru mistoa*: testuinguru arruntak eta banakako ekintzak ikaslearekin.
- Hiru aldagai horien arteko elkarreaginean definituko du esku-hartzea.

1. KOADROA: Eskolan hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenean esku hartzeko aldagaiak

I. Gehienezko lehentasuna	
<i>Etiologia</i>	<i>Hezkuntza-testuingurua</i>
(A.1) Arrazoi sensorialak: entzumenaren gutxitze sakona.	<i>Testuinguru mistoa</i>
(A.2) Arrazoi sensorialak: entzumenaren gutxitze larria.	
(B.1) Arrazoi neurologikoak: afasia eta disfasia.	
(B.2) Arrazoi neurologikoak: disartria.	
(C) Arrazoi psikikoak: garapenearen nahaste larria. Autismoa.	
(D) Adimen urritasun sakona eta larria.	
II. Lehentasun ertaina	
<i>Etiologia</i>	<i>Hezkuntza-testuingurua</i>
(A) Arrazoi sensorialak: entzumenaren gutxitze moderatua.	<i>Testuinguru mistoa</i>
(C) Arrazoi psikikoak: nortasunaren eta portaeraren nahasteak.	
(D.1) Adimen-urritasun moderatua.	
(D.2) Adimen-urritasun arina.	
(D.3) Mugako adimen-gaitasuna eta zehaztu gabeko adimen-urritasuna.	
(E) Hizketaren erritmoaren nahastea: totelka hitz egitea.	
(F) Nahaste organikoa: disglosia.	
(H) Nahaste fonologikoa.	
III. Gutxienezko lehentasuna	
<i>Etiologia</i>	<i>Hezkuntza-testuingurua</i>
(A) Arrazoi sensorialak: entzumenaren gutxitze arina.	<i>Testuinguru arrunta</i>
(G) Heltzeko moteltasuna: hizkuntza-atzerapen sinplea.	
(H) Nahaste fonetikoa: dislalia funtzionala.	

OHARRA: Urritasunak edo nahasteak inola ere ez du esku-hartzea erabakitzen; aitzitik, hizkuntza-alorrean edo horri lotutako komunikazio-eremuan erakutsitako hezkuntza-premia bereziek determinatzen dute.

6. ESKU-HARTZEKO EREDU INKLUSIBOA: HEZKUNTZA-LANKIDETZA

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak ikastetxe arruntetan integratzeak inklusioaren kontzeptua ekarri du; hau da, ikasleen dibertsitateari gela arruntaren barruan erantzutea.

Integrazioa prozesu bat da, eta horren bidez, zailtasunak dituen haurrari eskola arruntaren testuinguruan ematen zaio hezkuntza, eskola berezi eta berezi batean eman ordez. Hala ere, jokaera horrek ez dakar, nahitaez, aldaketa aipagarriak burutzen den eskolan (Castejón, 2004): «Gauza bat da ikaslea ikastetxe edo gela arruntan kokatzea, eta besterik da, ordea, kokatze horrek ikaslea hartu duen zentroari eraldaketa ekartzea antolamendu-, curriculum- eta metodologia-proposamenei dagokienez, dibertsitateari erantzuna emate aldera».

Gaur egun, ikasleen dibertsitateari arreta ematea bihurtu da irakaskuntzaren zailtasun nagusi eta hezkuntza-kalitatearen giltzarri, eta ikasgelako maisu-maistrak jotzen dira horretarako baliabide nagusi, eta horrek etengabeko ahalegina eskatzen die irakasleei beren lanbide-gaitasuna hobetu eta irakasteko trebetasunak garatzeko. Horrekin batera, zenbait egile —hala nola, Porter, Marchesi, Acosta, Lindsay...— ari da lankidetza garatzeko antolamendu-modu berriak proposatzen, bi printzipio nagusi oinarritzat hartuta: maisu-maistraren zeregina ikasgela arruntan, eta laguntza-langileen funtzioa.

Hezkuntza-eredu inklusiboan, eskolako logopediak eraldatu egin behar du, hizkuntza-zailtasunak dituzten ikasleei esku-hartzearen bidezko arreta emateko. Esku-hartze horrek, beraz, ondokoak uztartuko ditu: haurrekiko banakako ekintza, eta haurrak bizi duen familia- eta eskola-inguru jakin horretan komunikaziorako baldintzarik egokienak sortzea, estrategiak garatzearen bitartez.

Eskola inklusiboaren garapen-prozesuak zera dakarkio esku-hartze logopedikoari: gela arruntera, curriculumera, eta irakasleengana gehiago hurbiltzea; alegia, hizkuntza-zailtasunak hizkuntza-irakaskuntza prozesuko zailtasunekin estu lotuta ageri diren egoera naturaletara.

Aldaketa hori, baina, bakarrik egin ahal izango da entzumen- eta hizkuntza-espezialistaren edo logopedaren eta maisu/maistraren arteko lankidetza-proposamenak garatuz. Alegia, antolamendurako marko edo esparru berria behar da, banakako arreta eskusiboa mugatu, eta irakasleari lankidetza eta laguntza ematea sustatuko duena, dibertsitateari erantzuna emateari dagokionez.

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- AINSCOW, M. Y BOOTH, T.: *The Index for Inclusion* (2ª edition): Centre for Studies on Inclusive Education, 2002.
- BOSCH, L.: *Evaluación fonológica del habla infantil*, Bartzelona: Masson, 2005.
- CASTEJÓN, L. A.: «La colaboración logopeda-maestro: hacia un modelo inclusivo de intervención en las dificultades del lenguaje», *Revista de Logopedia, Foniatría y Audiología*, 24 bol, 2 zk. (2004), 55-66.
- DEL RÍO, M. J.: «La orientación psicolingüística en el estudio del lenguaje», in Puyuelo, M., Acosta, V. M. y Rondal, J. (Eds.), *Dificultades del lenguaje, colaboración e inclusión educativa*, Bartzelona: Ars Médica, 2003.
- GARRIDO, J.: *Atención educativa al alumnado con dificultades de cognición*, Málaga: Aljibe, 2004.
- HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA: *Euskal Herriko hezkuntza berezirako egitamua* [15. documento], Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1983.
- Eskola muinbakar eta integratzailea*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1990.
- RIGO, E: en V. Acosta y A. Moreno: *Dificultades del lenguaje en ambientes educativos* (pp 7-9), Bartzelona: Masson, 1999.
- SARMIENTO, MARCHENA Y REYES: «La formación del profesorado de audición y lenguaje», in Martín Espino (arg.): *La logopedia escolar y clínica. Últimos avances en evaluación e intervención* Madrid: CEPE, 1999.

